

HAWAIKO AZKEN PRINTZESA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Honolulu, 1875eko urriaren 16a. Victoria Kawēkiu Kaiulani Lunalilo Kalaninuiāhilapalapa Cleghorn jaio zen. Hawaiiko errege Kalakauaren arreba zuen ama, Miriam Likelike printzesa. Aita, aldiz, Archibald Scott Cleghorn finantzari eskoziarra. Eta amabitxia Ingalaterrako Victoria erregina, urte batzuk lehenago Hawaiiren independentzia berreskuratzen lagundu zuena, beti ere Ingalaterraren interesen alde (eta AEBen interesen kontra).

14 urte zituela hara, Ingalaterrara, bidali zuten Kaiulani ikasketak osatzera eta lau urte eman zituen bertan. Kalakaua 1891n hil zen eta haren alargun Liliuokalani izan zen erregina. Errege-erreginek ez zeukaten seme-alabarik eta Kaiulani izendatu zuten oinordeko. Baina ez zion luzaroan eutsiko printzesa koroatu tituluari. 1893an monarkia abolitu zuten Ozeano Bareko artxipelagoan eta AEBekin bat egitearen aldeko gobernu berria ezarri. Tronugabetutako printzesa Ingalaterratik AEBetara joan zen orduan.

Besteak beste, Bostonen eta New Yorken prentsurrekoak eta hitzaldiak eman zituen Hawaiiren burujabetzaren alde.



Kaiulani,
Hawaiiko printzesa
oinordekoa,
San Franciscon
egindako argazkian.

J.J. WILLIAMS

Washingtonen Grover Cleveland presidentearekin modu ez formalean biltzea lortu zuen. Presidenteak asmo onak adierazi arren AEBetako kongresuak ez zien printzesaren eskaerei jaramonik egin.

1894an Hawaiiko Errepublikak ezarri zen, Robert Louis Stevenson txikitako laguna hil zen eta Kaiulaniren berezko osasun pattala gehiago ahuldu zen. 1897an itzuli zen printzesa Hawaiiara, Annie ahizparen heriotzaren berri izan ondoren eta ahalegin diplomatiko guztiak porrot eginda. Hawaiiko klima tropikalaren erruz, haren osasunak okerre egin zuen. Iritsi eta berehala, igerian ari zela, hotzeria harrapatu zuen eta, geroago, 1898an pneumonia, zaldian

ibiltzen ari zela ekaitzak harrapatu ondoren.

Eta, azkenik, 1898ko abuztuaren 12an AEBek Hawaii anexionatu zuten. "Tronua galtzea baino askoz mingarriagoa izan da gure bandera eraisten zutela ikustea", adierazi zuen oinordekoak. Anexionaren zeremonian, errege familia jauregian bildu zen eta, hawaiiar gehienak bezala, dolutan egon ziren, lutozko jantziak soinean. Jantziak ez zituzten luzaroan gordeko.

Kaiulanik izebari, Hawaiiko azken erreginari, idatzi zion azken gutuna: "Dena kendu digute, bizia besterik ez zaigu gertatzen". Eta handik gutxira hil zen, 1899ko martxoaren 6an, 23 urte zituela. ■



SAN DIEGOKO HISTORIA NATURALEKO MUSEOA

Gizakia uste baino lehenago iritsi zen Amerikara

Horixe dio behintzat 1992an San Diegotik (AEB) gertu eraikitzen ari zen autobide batean topatutako mastodonten hezurrek. Hezur horiek animalia hil berritan harriz hautsi izanaren markak dituzte, hezur-muina ateratzeko asmoz. Gainera, alboan ingude eta mailu gisa erabilitako harriak ere topatu zituzten. Uranio atomoen deskonpo-

saketan oinarritutako metodoa erabili dute aztarnak datatzeko eta emaitzak dio 130.000 urte dituztela. Adituen arabera, marka horiek hominidoek egindakoak izan behar dute (Denisovako gizakiek zein neandertalek). Orain arte aurkitutako frogak zioten gizaki modernoak duela 15.000 urte iritsi zela Amerikara. ■